

ZINEMA (H)ABIAN / CINEMA EN CURS GIPUZKOA 2018-2019 PROGRAMAN PARTE HARTZEKO DEIALDIA

Zabalik dago Euskadiko Zinema (h)abian / Cinema en curs programaren 2. edizioan parte hartzeko deialdia. Programa honen bitartez, eskola eta institutuetan zinema irakatsi nahi da, eta, irakasleek eta zinemagileek lantegietan eginiko elkarlanaren bidez, ikasleei zinema hurbildu nahi zaie, artea, kultura eta sorkuntza den heinean.

Programa hau ikasgelako dinamikaren barruan lantzen da, eta irakasteko nahiz ikasteko metodologia berriak ezartzen ditu; hala, ikasleak prozesuen protagonista bilakatzen dira, zeharka eta modu globalizatuan lan egiten da, ikasle guztiak aintzat hartzen dituzten lan kooperatiboak sustatzen dira, eta egoera errealak abiapuntutzat hartzen dira, bizipenetan oinarrituz ikasteko. Konpetentzia hauek lantzen dira bereziki: hizkuntza- eta arte-gaitasunak, inguruneari balioa emateko gaitasuna, behaketa eta arreta, autonomia, ardura indibiduala eta kolektiboa, eta beste.

Zinema (h)abian / Cinema en curs programak 3 lan-ardatz ditu:

- Lantegiak: irakasleek eta zinemagile batek ematen dizkiete Lehen Hezkuntzako 5. mailatik Batxilergoko 1. mailara arteko taldeei.
- Maisu-maistren eta irakasleen prestakuntza.
- Ikastetxean bertan egiten diren jarduerak: helburua da zinema parte hartzen duten eskola eta institutuetaiko hezkuntza-proiektuaren zeharkako ardatz bilakatzea.

Zinema (h)abian / Cinema en curs A Bai A Qu erakundearen nazioarteko programa bat da, eta Tabakalera eta Elías Querejeta Zine Eskolak garatzen dute Gipuzkoan. Galizian, Madrilen, Argentinan, Txilen eta Alemanian ere egiten da programa.

Gipuzkoan, 2018-2019an, 2 ikastetxek parte hartuko dute (1 deialdi irekiaren bidez hautatua).

Zinema (h)abian / Cinema en curs programari buruzko informazio gehiago:

<http://www.cinemaencurs.org/eu>

<https://www.tabakalera.eu/eu/zinema-habian>

<http://zine-eskola.eus/es/zinema-habian-cinema-en-curs>

Lantegien nondik norakoak ikus daitezke 'Lantegien egunerokoa' atalean:
<http://www.cinemaencurs.org/eu/diari-dels-tallers>

Adibide gisa, Lasarte-Oriako Oriarte institutuko 1. mailakoek 2017-2018an egin zuten 'Lantegiaren egunerokoa' ikus daiteke: <https://bit.ly/2qDkFgP>

Interesgarria da, halaber, egindako filmetako batzuk ikustea: <http://www.cinemaencurs.org/eu/films>

1. IRAKASLEEK ETA ZINEMAGILE BATEK ELKARREKIN EMATEN DITUZTE LANTEGIAK

Zinema (h)abian / Cinema en curs programan, filmak eta filmen zatiak ikusten dira, eta sorkuntza zinematografikoa sakon lantzen da. Praktikak egin ondoren, talde bakoitzak fikziozko film labur edo dokumental labur bat sortzen du. Ikasleak dira taldean egiten diren prozesu guztien autoreak.

Norentzat dira lantegiak?

Lehen Hezkuntzako 5. mailatik Batxilergoko 1. mailara bitarteko ikasleentzat.

Nork ematen ditu?

Irakasleen talde batek eta zinemagile batek elkarrekin ematen dituzte lantegiak. Zinemagileak gutxi gorabehera 25 saiotan parte hartzen du ikasleekin. Irakasleek aktiboki parte hartzen dute beti saioetan, eta beste klase batzuetan ematen diote jarraipena lanari.

Zer ekipamendu behar da?

Lantegietan kamera- eta soinu-ekipo profesionalak erabiltzen dira, Zinema (h)abian / Cinema en curs-ek emandakoak. Horrez gain, ikastetxeetako ordenagailuak, proiektoreak, argazki-kamerak edo bideo-kamerak ere erabiltzen dira. Ikastetxeak lantegirako disko gogor espezifiko bat izan behar du.

Modalitateak eta garapena

Lantegiotan, praktikak egiten dira eta filmak ikusten dira zenbait ikastetxeren artean, hala irakasleek nola zinemagileek urteetan landutako metodologia bateratuari jarraituz.

Ikastetxeak hautatzean, Zinema (h)abian / Cinema en curs programako taldeak ikastetxe bakoitzarekin aztertzen du zein izan litekeen garapen egokiena.

Ikasturte bakoitzean, ikastetxe bakoitzetik talde bakar batek parte hartzen du zinemagilearekin egiten den lantegian. Gainera, materialak eta metodologiak ikastetxe osoari begira prestatzen dira, zinemak, arteak eta sorkuntzak leku garrantzitsua izan dezaten ikastetxearen proiektuan.

Zinemagilearekin egiten diren saioen ordutegiak eta antolakuntza

Lantegiek ikasturte osoa irauten dute, eta zinemagileak gutxi gorabehera 25 saiotan parte hartzen du. Saio horietatik aparte, irakasleek edukiak lantzen dituzte zinemagilerik gabe, bai eduki fotografiko edo zinematografikoak bai proiektuarekin lotutako beste zeharkako eduki batzuk.

Astean gutxienez bizpahiru ordu egin behar dira jarraian, eta taldeak gutxienez aparteko beste 2 ordu sartu behar ditu. Gutxieneko ordu kopuru hori hainbat faktoreren arabera izango da: ikasle kopurua, ikastegiaren kokalekua (zinemagilearen desplazamenduengatik), ikastetxearen antolamendu orokorra...

Zinemagileak bizpahiru orduko saio gehienetan parte hartzen du, eta beti irakasleekin batera lan egiten du; irakasleek, gainerako orduetan, normal jarraitzen dute lanarekin. Zinemagilearekin batera egiten diren saioetan lan egiten duten irakasleek, gainera, proiektuari astean sartu behar zaizkion beste orduetan ere jardun behar dute.

Dokumentazio-, plangintza-, filmatze- eta muntatze-prozesuetarako, lan-saio luzeagoak egingo dira, gutxienez 12, eta ikasleek txandaka parte hartuko dute, taldean. Taldea zatitzen den guztietan, irakasle bat eta zinemagilea egongo dira.

Lantegiak eskolako irakasgaien barruan eman daitezke, proiektuak lantzeko espazioetan, eta, Lehen Hezkuntzako ikastetxeen kasuan, zeharka.

Lantegiaren egunerokoa

Ikasleen gogoetak, sorkuntza-prozesuak eta ikasturte osoan egiten diren praktikak 'Lantegien egunerokoa' atalean argitaratzen dira (<http://www.cinemaencurs.org/eu/diari-dels-tallers>). Egunerokoen bitartez, gainera, ikasleek esperientziak eta iritziak parteka ditzakete beste lantegi batzuetako ikaskideekin.

Irakasleek kudeatzen dituzte egunerokoaren edukiak eta edizioa, ikasleek sortutako testu eta materialekin. Zinema (h)abian / Cimen en curs programako taldeak beharrezko baliabide teknikoak ematen ditu.

Deialdira aurkezten diren ikastetxeek lan hau egiteko konpromisoa hartzen dute.

Filmen estreinaldia aretoan

Ikasturtearen amaieran, EAEko ikastetxeetako ikasleek egindako film laburrak proiektatzen dira Tabakalera, eta ikastetxe guztiek parte hartzen dute jardunaldi horretan.

2. IRAKASLEEN PRESTAKUNTZA

Ikasturte osoan, irailetik uztaileira, 5 saiotan banatutako prestakuntza-programa bat lantzen da. Eduki praktikoak, metodologikoak eta instrumentalak jorratzen dira, eta irakasleek esperientziak trukatzeko dituzte elkarrekin.

Proiektua behar bezala gauzatzeko, irakasleek nahitaezkoa dute prestakuntza-saio guztietara joatea.

Hona hemen 2018-2019ko prestakuntza-saioen egutegia:

- Uztaileko lehen hamabostaldia: proiektuan arituko diren irakasleentzako hasierako prestakuntza.
- Irailak 14 eta 15 (ostirala eta larunbata): prestakuntza Kataluniako La Llobeta etxean.
- Prestakuntza-jardunaldia azaroan - abenduan.
- Prestakuntza-jardunaldia urtarrilean - otsailean.
- Ekainaren amaiera, uztailearen hasiera: 4 orduko jardunaldia Tabakalera.

Irakasleek, zinemagileekin batera, proposatutako eta esperimentatutako praktika eta metodologiak aztertu eta hausnartuko dituzte.

3. IKASTETXE OSOAN IZANGO DUEN ERAGINA

Lantegiek ikasturte osoa irauten dute. Ikastetxeek gutxienez 3 urtez parte hartuko dute, betiere ikasturtea amaitzean ebaluazio positiboa egiten badute. Ikastetxeak, ikasturte batean baino gehiagotan parte hartzen badu, konpromisoa hartuko du proposamenak, ekintzak eta metodologiak lantegietan zuzenean parte hartzen ez duten beste irakasle eta taldeei helarazteko. Zinema (h)abian / Cinema en curs programako taldeak horretarako baliabideak eta prestakuntza ematen ditu.

4. ZINEMA (H)ABIAN / CINEMA EN CURS PROGRAMAKO LANTEGIETAN PARTE HARTZEKO ESKAKIZUNAK

4.1. Eskakizun orokorrak

- Euskadiko Lehen eta Bigarren Hezkuntzako ikastetxe publikoek parte har dezakete deialdi honetan.
- Lantegiak Lehen Hezkuntzako 5. mailatik Batxilergoko 1. mailara arteko taldeekin egin daitezke.
- Ikastetxeko zuzendaritza-taldeak oniritzia eman behar dio proiektuari.

4.2. Eskakizun espezifikoak

Programan parte hartzeko, honako eskakizun hauek bete behar dira:

- Gutxienez astean 4 ordu sartzea, eta horietatik 2 edo 3 jarraian, asteroko saio batean. 2-3 orduko saio horietan, normalean zinemagileak parte hartzen du. Irakasleetako batek gutxienez astean 3 ordu eman behar ditu.
- Beharrezko faseetan lan-jardunaldi luzeak egitea.
- Gutxienez 2 irakasle aritzea, eta horietatik gutxienez 1ek ikastetxean plaza izatea.
- Irakasleetako batek zinemagilearekin jarraian egingo diren bizpahiru orduetan parte hartzea.
- Aukera ematea taldea zatitzeko eta ikasle guztiak beti irakasle batekin egoteko.
- Lantegiaren ardura duen irakasleak hala ikasleekin egiten den lanean nola koordinazio-lanetan esku hartzea, 'Lantegiaren egunerokoa' kudeatzea eta gainerako zereginak betetzea.
- Lantegiaren bitartez zeharkako edukiak jorratzea.
- Irakasleak prestakuntza-jardunaldietara joatea.
- Tabakalerako zinema-aretoan emango diren filmetako bat ikustera joatea beste lantegietako parte-hartzaileekin.
- Ikasturte amaieran Tabakalera emango diren lantegietako filmak ikustera joatea.

4.3. Hautaketa-irizpideak

- Ikastetxeak sorkuntza-prozesuei lotutako lan-metodologia berriak aplikatzeko dituen espektatibak eta motibazioak.
- Proiektuarekin eta proiektuaren bidez zeharkako lan bat antolatzeko gaitasuna.
- Ingurunearekin loturak egiteko edo ingurunearekiko loturak indartzeko interesa.
- Irakasleen eta curriculum-arloen inplikazioa.
- Zuzeneko inplikazioa duten irakasleen eta zuzendaritza-taldearen konpromisoa.
- Baliabideak, metodologiak eta proposamenak gainerako taldeei helarazteko prestasuna eta gaitasuna (bereziki, bigarren urtean, irakasle eta ikasle gehiago inplikatur).

4.4. Beste irizpide batzuk

- Kontuan hartuko da, ahal dela, ikastetxeetako lurralde-oreka eta egoera soziokulturalen aniztasuna.
- Aintzat hartuko da Zinema (h)abian / Cinema en curs programa lan-erakunde globalizatu batean edo proiektuen araberakoan inskribatzea.
- Aintzat hartuko da tokian tokiko erakunde eta elkarteak inplikatzeko gaitasuna.

4.5. Irizpide osagarriak

Uste bada proiektu bat baino gehiago era berean direla interesgarriak, honako irizpide osagarri hauek erabiliko dira:

- Konplexutasun handiko ikastetxeak edo egoera sozioekonomiko ahulean daudenak.
- Landa-guneetako ikastetxeak edo kulturgune nagusietatik urrun daudenak.
- Eraldatze pedagogikoko prozesuan dauden ikastetxeak.

5. PROZEDURA

Eskaerak jaso ondoren, Zinema (h)abian / Cinema en curs programako taldeak (A Bao A Qu, Elías Querejeta Zine Eskola eta Tabakalera) ikastetxe batzuk hautatuko ditu, aurkeztutako dokumentazioan eta proiektuak 2018-2019rako dituen helburuetan oinarrituta. Ikastetxe horietako bakoitzarekin bilduko da, eta programan parte hartuko duten irakasleek eta gutxienez zuzendaritza-taldeko kide batek parte hartuko dute bileretan.

Bileren ondoren, ikastetxeak hautatzeko lehen proposamena egingo da.

Eta hori amaitzean, aurrez hautatutako ikastetxeei dokumentazio hau aurkezteko eskatuko zaie:

- Behin betiko antolakuntza-proposamena (hezkuntza maila, ikasle kopurua, proiektua landuko duten irakasgaiak edo arloak, irakasle inplikatuak).
- Lantegiak ikastetxean oro har izango duen eragina. Curriculumeko arloen integrazioa.
- Ikasle Kontseiluaren onarpenaren ziurtagiria.

5.1. Egutegia

Ikastetxeek eskaera aurkezteko epea: maiatzaren 22tik ekainaren 14ra.

Ikastetxeekin biltzeko epea: ekainaren 18tik 26ra.

Ikastetxeek azken dokumentazioa aurkezteko epemuga: ekainaren 29a

Ebazpena: uztailaren 2a

5.2. Ikastetxeek aurkeztu beharreko eskaeretako dokumentazioa

Zinema (h)abian / Cinema en curs proiektuan parte hartu nahi duten ikastetxeek honako dokumentazio hau bidaliko dute, asko jota 4 orrialdetan:

- Ikastetxearen aurkezpena: ezaugarriak, ibilbidea eta hurrengo ikasturteetarako helburuak.
- Ikastetxeak proiektuan parte hartzeko dituen motibazioak.
- Antolakuntza-proposamen posibleak (maila, ikasle kopurua, ordutegiak, proiektua jorratuko duten irakasgaiak edo arloak, etab.).

- Parte hartuko duten irakasleak eta haien motibazio pertsonala.

6. ESKAEREN AURKEZPENA

Eskaerak posta elektronikoz bidal daitezke lolaizola@tabakalera.eu helbidera.